



## **BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO GAZTEEN ENPLEGURAKO PLANAREN GAINEKO HAUSNARKETA**

**- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua -  
- Bizi Baldintza Materialak / Condiciones de Vida Materiales -  
- Bilbao - EGK - 2013.02.05 -**

### **Oinarrizko dokumentuak:**

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) "Gazteria, enplegua eta prekarietatea" lan taldeak 2012ko Gazteen Enplegu Planaren harira egindako hausnarketa.
- Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako 2013 urteko Gazteen Enplegu Plana (GEP).

**Metodologia:** BFAk 2012 eta 2013.urteetan garatutako GEP-en kontrastea. Egin diren eta egin ez diren aldaketen hausnarketa. Lan taldeko elkarteekin kontrastea.

### **AURKIBIDEA:**

#### **0\_ALDEZ AURREKO OHARRAK**

#### **1\_BIZKAIKO 2013.URTEKO GAZTEEN ENPLEGURAKO PLANA**

- KONPARAKETA: GEP 2012-GEP 2013**
- BALORAZIO OROKORRA**
- NEURRI BAKOITZAREN BALORAZIOA**

#### **2\_GOMENDIOAK**

- GAZTEEN ENPLEGU PLANEN INGURUAN**
- NEURRI BEREZIEN INGURUAN**



## 0\_ALDEZ AURREKO OHARRAK

1// Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) eskatu digu, bigarren urtez jarraian, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) elkarteoi eta “Gazteria, enplegua eta prekarietatea” lan taldeari, Ekonomi Sustapen Saitetik sustatutako Gazteen Enplegu Plana (GEP) baloratzea. Hala ere, Aldunditik ez zaigu hainbat alditan eskatu izan zaion aurreko urtean garatutako ekintzen emaitzen txostena bidali. Horrela ba, aurten egindako hausnarketa ezin izan da 2012ko datuen eraginkortasunean oinarritu, emaitza hauek ezagutzea berebizikoa den arren berauen balorazio apropos bat egin ahal izateko.

Honez gain, GEP-a nortasun propioa duen plan bat izaki, datu argi eta ulergarri osaturiko dokumentu publiko bat izan beharko luke, erabilitako errekursoak fiskalizatu eta lortutako emaitza eta ekintzen eraginkortasun eta egokitzapena hausnartu ahal izateko.

Edozein modutan ere, dokumentu hau planaren helburu duen gizartearen atala barnebiltzen duen eskubide publikoko entitateri, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari kasu honetan, helarazi beharko litzaioke. Horrela ba, **aukera hau erabili nahi dugu berriz ere 2011 eta 2012 Gazteen Enplegu Planen emaitzak eskatzeko, eta baita 2013ko planarenak eskuragarri daudenean.**

2// Aurreko urtean “Gazteria, enplegua eta prekarietatea” taldeak egindako 2012ko GEP-aren balorazioarekin batera bilera bat eskatu zen. **Bilera BFAko Gazteria sailarekin eta GEP-a sustatutako sailarekin burutu nahi zen**, baina ez zen ipini aldundiaren partetik. Hala ere, oso garrantzitsua da martxan jarritako neurrien inguruko iritzia elkartrukatu eta planari proposamen berriak egin ahal izateko.

Berebiziko garrantzia dauka bilera honek, bai Bizkaiko gazteriaren egoera soziolaborala hobetzeko helburua betetzeko, eta baita BFAk berak egindako eskariari erantzuteko denbora hartu eta esfortzua handiak egin dituzten elkarteetako gazteen lana errespetatu eta baloratzeko.



## 1\_BIZKAIKO 2013.URTEKO GAZTEEN ENPLEGURAKO PLANA

Hurrengo taulan, 2013ko GEParen barruan barnebiltzen diren neurri ezberdinen lista aurkezten da, bai aurreko urteko planeko neurriekin konparatuz eta baita gazteria helburu duten hausnartuz.

Neurria	Gazteria helburu	2012ko planean
<b>I. ENPLEGU SUSTAPENA</b>		
A) Praktiketako kontratazioa	BAI	BAI
B) Autoenplegua sustatzea		
B.1) Aholkularitza eta trebakuntza ikastaroak	EZ	BAI
B.2) Enpresak abiaraztea eta sortzea	EZ	BAI
B.3) Enplegua sortzeko neurri berezia	EZ	BAI
B.4) Gazte ekintzaileentzako laguntza enpresak abiarazteko inbertsioak.	BAI	BAI
C) Praktiketako kontratuak eskatzen dituzten gazteei eta enpresei zuzendutako zerbitzua.	BAI	BAI
D) Enpleguaren eskualdeko sustapena. Behargintza zentroak.	zehaztugabe	BAI
E) Gazteen enplegarritasuna: Dema Enpresa Garapena.	zehaztugabe	BAI
<b>II. TALENTUAREN SUSTAPENA</b>		
F) Hobekuntza profesionala: Bikaintasunerako trebakuntza.	BAI	BAI
G) Hobekuntza profesionala. Espezializazio-gelak, ikastaroak eta praktikak atzerrian	BAI	BAI
H) Talentuaren sustapena. Bizkaia:Xede.	zehaztugabe	BAI
I) Jakintzaren kudeaketa: Bizkailab Deusto.	zehaztugabe	BAI

Taulan ikusi daitekeenez, 2013ko GEP-ak aurreikusten dituen neurri guztiak 2012 GEP-ean aurrera eramane ziren jada. Haien artean, mantentzen diren zenbait neurri ez dute gazteria helburu, gizarte talde orokorrako bat baizik.

Aurreko urtean egindako balorazioan ontzat hartu ziren gazteentzat bereziki diseinatutako ekintzak, eta azpimarratu zen baita gizarte osoari zuzendutako neurriekin ez nahasteko beharra (gazteon egoera bereizgarria kontutan hartu beharra dagoelako). Honez gain, ohar berezi bat egin zen: martxan jarritako neurri batzuk gazteon enplegu egoera are prekarioago bihurtzen lagun zezaketela.

Beste behin ere, gazteriarekin zuzenean lotutako ekintzak betiko neurriak aurkezten dituzte: PRAKTIKAK, FORMAZIOA eta EKINTZAILETASUNA (atzerrian ere). Alde batera geratzen dira prekaritatearen aurka borrokatzeko neurriak edo gazteontzako eskubide guztiak bermatuko dizkigun lan duina sustatzeko neurriak.



## 1.1\_ KONPARAKETA: GEP 2012-GEP 2013

**Orokorrean:** aurreko urteko neurri gehienak mantentzen dira, lekuz aldatuak edo berrantolatuak. Aldaketak gutxieneakoak dira.

**1\_ Bertan behera geratzen da “Langile Autonomoei Laguntzeko Plana”** → beste sektore batea mugitu da neurri hau, aurreko urtean egingo zutela esan zigutenez.

**2\_ Elkartzen dira “enpresak lehen urtean abiaraztea” eta “enpresa sortzea” neurriak** → Orain “Enpresak abiaraztea eta sortzea” izena hartzen du eta bi neurriak batzen ditu.

**3\_ Izena aldatzen du “Unibertsitateekin hitzarmenak” hurrengo izenagatik “Hobekuntza profesionala. Espezializazio-gelak, ikastaroak eta praktikak atzerrian”** → hiru neurri ezberdin barnebiltzen ditu, haien artean, atzerrian egiteko praktikak.

**4\_ Zerbitzu orokorrak eta hitzarmenak barnebiltzen dituzten eta gazteriari zuzenduak ez diren neurriak mantentzen dira** → Centros Behargintza, DEMA Enpresa Garapena, Bizkaia Xede, Bizkailab Deusto.

**5\_ Gazteriaren prekarietatearen aurkako inolako neurririk ez da ezartzen** → eta aldiz, **gazteriaren prekarietatea areagotu dezaketen neurri eta neurri konbinazioak mantentzen dira.**



## 1.2\_BALORAZIO OROKORRA

1/// Gazteen Enplegu Planak gazteen enplegurako ezartzen dituen neurriak ohiko “irtenbide magikoen” eremuan kokatzen dira: gazteen eskubideak murrizten dituzten kontratazio formulak (praktikak eta bekak), formakuntza, ekintzailetasuna eta atzerriratzea.

Gainera, bereziki gazteei zuzenduta ez dauden neurriak sartzen dira Gazteen Enplegu Planaren baitan eta, modu horretan, gazteria argudio gisa erabiltzen da, gazteriarekin zerikusi handia ez duten neurriak ezartzeko.

2// GEP honek aurrera eramandako neurriak ez dira logika orokor baten barruan sartzen eta ez dute inolako estrategia bateraturik definitzen. Horrexegatik Aldundiaren beste enplegu plan batzuek edo beste administrazio batzuek bultzatutako neurriak errepikatzen dituzte.

Besteak beste:

\*Praktika kontratuak – Eusko Jaurlaritzak badauka honen antzerako neurri bat.

\*Aholkularitza eta formazioa

\*Praktikak atzerrian - Eusko Jaurlaritzak badauka honen antzerako neurri bat.

3// Aitzitik, GEP honek gazteentzat baino, enpresariarentzat onuragarriagoak diren neurriak batzen ditu. Badirudi GEP honen helburua GAZTEON KONTURA BIZKAIKO SUSTAPEN EKONOMIKOA LORTZEA dela, hau da, garapen ekonomikoa jende gaztearen enplegu eta duintasunaren aurretik hobestea.

4// Honez gain, zenbait neurrik GAZTERIAREN PREKARIETATEA EGOERA TXARTORA ERAMAN DEZAKETE, enpresarien partetik zenbait praktika prekarizatzaile bultzatzen dituelako. Izan ere, alde batetik kontratatuzeko formula berezietan oinarritzen delako, gazteen eskubide sozioekonomikoak murriztuz. Eta bestetik, garantiarik gabeko ekintzailetasunean oinarritzen delako, bakoitzaren zorpetze eta arriskuan oinarrituz.

Honegatik guztiagatik, beharrezkoa deritzogu enplegu plan honetako neurriek noraino iristen diren neurtzea, bai eta izango dituzten ondorioak epe motz, ertain eta luzera.

5// Lan taldearen ustetan, GEP batek bi motatako neurriak aurreikusi beharko lituzke: enpleguaren sustapenerako neurri aktiboak eta gazteriaren prekarietateari aurre egiteko neurriak. Baina, GEP honetan soilik lehen moduko neurriak topa ditzakegu, ez gazteen lan eskubide eta eskubide sozioekonomikoen urraketaren erroak moztera bideratutako neurriak. Ez praktika kontratuen baldintzak hobetzeko presio politikorik bideratzeko neurriak, ez mugagabeko kontratazioa bultzatzeko neurriak, eta abar. Berez, GEPeko zenbait neurri gazteriaren prekarizazioa areagotzen laguntzen dute, kontratazio formula bereziak gazteengan aplikatzea bultzatuz.

## 1.3\_NEURRI BAKOITZAREN BALORAZIOA

### I. ENPLEGUAREN SUSTAPENA

#### I.A) PRAKTIKETAKO KONTRATAZIOA



**Ekintza:** praktiketan kontratatutako 30 urte baino gutxiagoko gazte langileen ordainsari gordinaren %30a ordaintzeko diru-laguntza (gutxienez 6 eta gehienez 12 hilabeteko kontratazioa, eta gehienez 7.000euro urteko kontratazioetan eta 3.000 urte erdikoetan).

**Oharra:** aurreko urteko planean bezala mantentzen da.

**Oharra:** Eusko Jaurlaritzak mota honetako beste ekintza bat garatu du, gazteen praktika kontratazioa sustatzen (hiru hilabetez).

#### **Iruzkinak:**

**1//** Ekintza hau **gazteen lan egoera kaskartzen laguntzen duen horietariko bat da** (ohar orokorretan komentatutako 3.puntua). Berez, gazteriaren kontratazioa kontratu berezien bitartez bultzatzea du helburu, enpresen onuran eta kontratatutakoen eskubide sozioekonomiko eta laboralen kontra.

**2//** Berez diru-laguntzak jada jasotzen dituen kontratazio formula bat diruz laguntzen du. Izan ere, praktiketako kontratazioak enpresentzako langileen soldataren %40ko aurrezkoa suposatzen baitu (hitzarmenarekin konparatuta eta lehen urtean zehar). Onura honi GEPak eskainitako dirua gehituz, praktika kontratuaren %30a (behin soldata normalaren %40a kenduta), enpresari soldata normal baten %42a besterik ez zaio geratzen ordaintzear.

**3//** BFAko GEP honek kontratazio eredu hauek kontratazio normalaren gainetik bultzatzen ditu. Neurri hau, IB3 neurriarekin konparatzen badugu – kontratazio normalei laguntza–, praktika kontratuek diru gehiago jasotzen dutela ikusten dugu (%28 altuagoa – 3000 eta 2.000 euro gehiago). Honez gain, praktika kontratua IC neurrian zehaztutako zerbitzuaren bitartez egiten bada, ikus dezakeguna hurrengo hau da: praktika kontratuek kontratu normalekin parekatuta, %60 diru-laguntza handiagoa jasotzen dutela. Hau da, jende gaztearen eskubide sozioekonomiko eta laboralak murriztu eta mindu egiten dituen kontratazio eredu bat lehenesten da, kontratazio duinaren gainetik.

Honetaz gain, kontratazio normalei zuzenduriko dirulaguntzak ez daude gazteei zuzenduak, GEParen barne baldin badaude ere. Beraz, berriz ere, gazteen kontratazioa gure eskubideen urraketaren bidez sustatzen da.

**4//** Ekintza hau enpresa laguntzen duen neurri bat izaki (soldata baten %42a besterik ez du ordaindu behar) ez da inolako egonkortasun neurririk ezartzen kontratatutako pertsonak behin praktika epea pasatu ostean lana modu duin batean mantentzen. Ez da hau egiten, ez zigor ez sustapenaren bitartez.

Honegatik guztiagatik, enplegua praktika kontratuekin ez estaltzeko kontrol neurriak ezarri behar direla deritzogu. Eta, berez, enpresak diruz lagundutako praktika epearen ostean pertsona kontratatu ezean, zigor bat ezarri beharko litzateke. Neurri honen barne honakoa egongo litzateke: jasotako diru-laguntza itzultzea, diru-publiko hori kalitatezko enplegu egonkor bat sustatzeko erabili ahal izateko.

**5//** Gainera, praktika-kontratuarekin egiten den lana enpresako lanpostu bat ordezkatzeko ez duela ziurtatzeko neurriak hartu behar dira. Horretarako, kontratazio modu hauek langileen ordezkariak jakinarazteko informazio-kanalak bermatu behar dira, haiek jarraipena egin ahal izan dezaten.



Horregatik, praktiketan egindako edozein kontratazio formakuntza programa baten baitan dagoela bermatu behar da, eta enpresak jasotako diru-laguntza kontratatutako pertsonaren formakuntzarako erabiltzen dela ziurtatu. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin egindako kontratazioen jarraipen erreala egitea komeniko litzateke, diru-publikoaren erabilera egokia kontrolatu ahal izateko eta etorkizuneko programetarako elkarreragina izan ahal izateko.

## I.B) AUTOENPLEGUAREN SUSTAPENA

### **Iruzkin orokorra:**

Bigarren talde honetako neurriek **EZ dute zehazki jende gaztea helburu** ez eta jende gaztearen kontratazioa ere.

Bizkaiko Ekonomi Sustapen Saileko departamenduan izaera propioa duen beste plan bat existitzen da, ez zehazki jende gazteari bideratua eta helburu gisa autoenplegua eta ekintzailetasuna ere helburu duena: EMPRENDER plana. Plan hori “enpresa berriak sustatzeko plana da, kultura ekintzaile sustatzeko programa eta diru-laguntza ezberdinak artikulatzeko, enpresa-proiektu berriak sustatzeko eta Bizkaiko ekonomiarentzat estrategikoak diren jarduera berriak babesteko”.

**Oharra:** iaz bezala mantentzen da, salbuespen bakarrarekin: bi neurri bakar batean biltzen ditu.

**Oharra:** Eusko Jaurlaritzak ere ekintzailetasuna sustatzeko plan bat du, eta, gazte-enpleguari bideratutako neurrien artean, ekintzailetasunarekin lotuta dagoen atal bat.

### I.B.1) AHOLKULARITZA ETA TREBAKUNTZA IKASTAROAK

**Ekintza:** Formakuntzarako diru-laguntza erakundeentzat, ekintzaileentzako banakako aholkularitza eta negozio-plana egiteko babesa.

#### **Iruzkinak:**

Balizko bikoiztasunak antzeman dira, bai hitzarmen bidez erakundeei emandako diru-laguntzei dagokionez, bai eta bestelako administrazioetako erakundeek eskainitako beste zerbitzu batzuekin ere.

### I.B.2) ENPRESAK ABIARAZTEA ETA SORTZEA

**Ekintza:** enpresa baten sorreraren lehenengo urtean 3.000 euroko diru-laguntza, eskatzen duten enpresa guztientzat, 4.000 edo 5.000 (emakumeak eta bazterketa arriskuan dauden pertsonak) euro formakuntza eta banakako aholkularitza egin dutenei, aurreko diru-sailean oinarrituta.

#### **Iruzkinak:**

1// Laguntza hau ez du adin-mugarik ezartzen, eta beraz ez da bereziki jende-gazteari zuzendutako laguntza bat. Bestalde, 2012ko planarekin alderatuta, egoera prekarioan dauden langileek diru-laguntza hauek eskatu ahal izateko mugak ezabatu dira, eta hori



positiboa da. Aitzitik, diru-laguntza hauek gehien behar dituzten pertsonengana iritsi ahal izateko irizpideak ezarri beharko lirateke, ez baita inolako mugarik jartzen laguntza eskatzen duten pertsonak jaso ditzaketen enpleguak ez diren bestelako errentei dagokionez.

**2//** Diruz lagundu daitezkeen gastuak enpresarekin lotutako gastuetara mugatzen dira, baina ez dira egunerokotasunarekin lotutako gastuak diruz laguntzen eta, beraz, bere eguneroko bizitzako gastu arruntei aurre egin ezin dieten pertsonak ezin dute diru-laguntza hori eskatu, eta horrek batez ere pertsona gazteengan du eragina, bere lan-bizitza prekarioan ezin izan dutelako aurreztu.

**3//** Edozein kasutan, kooperatiben sustapenei arreta berezia eskaini beharko litzaiokeela irizten zaio, berdintasunezko lan-harreman eredu baten baitan.

### **I.B.3) ENPLEGUA SORTZEKO NEURRI BEREZIA**

**Ekintza:** lan-kontratu normalizatu bat egiteko kontratazio berriei diru-laguntzak (gutxienez 12 hilabete).

**Oharra:** aurreko urtean bezala mantentzen da.

#### **Iruzkinak:**

**1//** Gazteen Enplegu Planaren baitako neurrietan ez dira adin-mugak ezartzen, eta beraz ez da bereziki gazteen enplegua sustatzeko sortutako neurria.

**2//** Ekintza hau 1. ekintzarekin (praktiketan kontratazioa) alderatzen badugu, honakoa ondorioztatu dezakegu: praktiketan kontratatzeak, adin-muga ezartzen da. Kontratazio normal bat egiteko, ordea, ez da mugarik ezartzen. Beraz, Gazteen Enplegu Plan honek gazteentzat enplegu prekarioa sustatzen duela ondorioztatu genezake. Honakoak dira arrazoiak:

-Praktiketan kontratazioa jende gaztearentzat mugatzen da, eta kontratu arruntak jende guztiarentzat dira.

-Diruz-lagundu daitezkeen zenbatekoak alderatzen baditugu, ikusiko dugu nola gehiago laguntzen den ekonomikoki praktiketan kontratatzea, kontratu arrunt berri bat egitea baino. Beraz, eskubide sozioekonomiko eta laboral gehien dakartzan kontratazioa zigortzen da, eta eskubide horiek urratzen dituen kontratazio-mota saritzen da (ikus 1. ekintzaren iruzkinak).

-Berez, praktiketan kontratazioa merkeagoa da. Gainera diruz-laguntzen bada (kontratazio-normalak laguntzeko baino diru gehiagorekin), eta gainera neurria jende gazteari mugatzen bada, gazteak modu prekarioan kontratatzea sustatzen da, gure lan duintasuna eta gure eskubideak sustatuko duten kontratuak bultzatu beharrean.

**3//** 1. ekintzaren kasuan bezala (praktiketan kontratazioa) ekintza honetan ere ez da neurririk ezartzen (ez sustapen ezta zigorrik ere), kontratatutako pertsonaren egonkortasuna eta iraunkortasuna bermatzeko. Puntu hau, lan-erreforman onartutako ekintzaileentzako kontratu mota berriarekin batera (gogoratu kontratu horrek urtebeteko proba aldia onartzen duela, eta





urtebete horren ondoren pertsona hori kaleratzea baimentzen duela, indemnizaziorik gabe) prekarietatea eta ezegonkortasuna are gehiago sustatu dezake.

4// Ez du errenta-mugarik jartzen diru-laguntza emateko, eta Gazteriaren Kontseiluko lantaldeak beharrekoak ikusten ditu muga-horiek (zehazki, gehienezko-errenta mugak).

#### **I.B.4) Gazte ekintzaileentzako laguntza enpresak abiarazteko inbertsioak**

**Ekintza:** Inbertsioetarako diru-laguntzak (higiezinetan) 30 urtetik beherako gazteek sustatutako enpresak abiatzeko (gehienez 1.700 euro 30 urtetik beherako enpresako pertsona bakoitzeko, eta 6.800 euro gehienez enpresa bakoitzeko).

**Oharra:** aurten autoenplegua sustatzeko neurrien taldean sartzen da, baina berdin mantentzen da.

**Iruzkina:**

1// Diruz laguntzen diren gastuak enpresarekin lotutako gastuak dira, eta ez dira egunerokotasuneko bizitzarekin lotutako gastuak diruz-laguntzen. Ondorioz, bere eguneroko bizitzako gastuei aurre egin ezin dieten pertsonak ezin izango lukete laguntza hau eskatu, eta horrek eragina du batez ere gazteengan, bere lan-bizitza prekarioan ez dutelako aurrezteko aukerarik izan.

#### **I.C) Praktiketako kontratuak eskatzen dituzten gazteei eta enpresei zuzendutako zerbitzua**

**Ekintza:** PRAKTIKETAN KONTRATUAK egiteko zerbitzu telematikoa, GOI MAILAKO IKASKETAK dituzten 30 urtetik beherako gazteentzat bakarrik.

**Iruzkina:**

1// Zerbitzu honek bikoiztasunak eragiten ditu Lanbide bezalako beste administrazioek abiatutako zerbitzuekin.

2// Beste behin ere, gazteentzat enplegu prekarioa sustatzen dela ondorioztatu daiteke, sistema honek praktika-kontratuak baino ez dituelako sustatzen, eta ez eskubideak bermatzen dituen enplegu duina.

#### **I.D) ENPLEGUAREN ESQUALDEKO SUSTAPENA. BEHARGINTZA ZENTROAK.**

**Ekintza:** Ez dira zentro honetan garatuko diren ekintza zehatzak definitzen. Bere finantzazioa dela ulertzen da.

**Iruzkina:**

1// Zentro hauetako jarduerak ez daude bereziki gazteei zuzenduta; diru-sail honetan bere funtzionamendu orokorra sartzen da. Zentro bakoitzaren erabakia da jende gazteari zuzendutako jarduerak garatzea.



Hitzarmenak diruz-laguntzen dituen ekintzak ondorio-txostenean (memorian) agertu beharko lirateke, baina ez dugu dokumentu hori.

2// Nolanahi ere, aurreko urteko zerbitzuen daturik ezean, ezin da baloratu zentro hauek erreferentziatzeko puntuak ote diren komarka ezberdinetako pertsonentzat.

### **I.E) GAZTEEN ENPLEGAGARRITASUNA: DEMA ENPRESA GARAPENA**

**Ekintza:** Ez dira definitzen garatuko diren neurri zehatzak. DEMA-k gazteei zuzendutako programa batzuk ditu: PRESTIK (gazte-enpleguaren azoka) eta EGIN ETA EKIN (ekintzailetasunaren kultura zabaltzeko programa). Gainontzeko jarduera ez dago bereziki gazteei bideratuta (enpresen sorkuntza eta egonkortzea, eta familia-enpresak).

**Iruzkinek:**

1// Gazteria DEMA agentziaren publiko gisa agertzen den bezala, ekintza honek ez du zehazten ze programa laguntzen diren diruz; bere funtzionamendu orokorra finantzatzen duela dirudi.

2// EGIN ETA EKIN programa ere EMPRENDE planaren baitan agertzen da (hau da, Gazteentzako Enplegu Plan hau bultzatzen duen sail berak egindako beste plan batean), eta horrek agian bikoiztasunak eragin litzake.

## **II. TALENTUAREN SUSTAPENA**

### **II.F) HOBEKUNTZA PROFESIONALA: BIKAINTRASUNERAKO TREBAKUNTZA**

**Ekintza:** Duela hiru urte ala gutxiago graduatu edo lizentziatu diren pertsonentzat nazioartemailan hobekuntza-ikastaroak egiteko diru-laguntzak (gehienez 10.000 euro 6 hilabeteko egonaldientzat –gehienez 1.000 euro hilabeteko + bestelako matrikula gastuak...).

**Iruzkinek:**

1// Lehen, diruz-lagundutako pertsonak diru-laguntzaren %80a itzuli behar zuen, bi urteko epean ez bazen Bizkaian lan egitera itzultzen. Dirudienez, klausula hori kendu da, eta hori modu positiboan baloratzen da.

2// Ez dago antzeko ekintzarekin beste zentro nazional edo tokian-tokikoetan (nahiz eta aurrekontu faltagatik dela komentatzen den); dagoena hau da: matrikulazio beka, unibertsitate publikoak...

3// Beste diru-laguntza batzuen kasuan bezala, diru-laguntza hauek esleitzeko orduan kontutan hartu beharko litzateke eskatzailearen errenta-maila, bere baliabide propioekin horrelako formakuntza bat lortu ezin dezaketenean pertsonen aukerak sustatzeko.

### **II.G) HOBEKUNTZA PROFESIONALA. ESPEZIALIZAZIO-GELAK, IKASTAROAK ETA PRAKTIKAK ATZERIAN**



**Ekintza:** Ekintza hau beste hiru ekintzetan zatitzen da:

**1) ESPEZIALIZAZIO GELAK:** makina-erremintako gelak, “Aula Espacio” eta Unibertsitateko “Aeronautika gela” mantentzea.

**2) HOBEKUNTZA GELAK:** masterrak egiteko hitzarmenak unibertsitateekin (Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Giza Baliabideak, marketinga edo nazioartekotzea) eta Leonardo da Vinci eta Erasmus programentzat.

**3) PRAKTIKAK ATZERRIAN:** gaikako klusterrekin hitzarmenak, atzerrian egoitza duten Bizkaiko enpresentzat diru-laguntzak...

**Oharra:** ez dira neurri berriak, “Unibertsitateekin hitzarmenak” izeneko atalean agertzen ziren.

**Iruzkinek:**

**1//** Ez da neurri hauen inguruko ezer zehazten, eta beraz, informazio gehiago izan arte, zaila da baloratzea.

**2//** Ez da azaltzen zergatik aukeratzen diren zehazki espezializazio gela horiek eta hobekuntza-ikastaro horiek, ez eta jende gaztearentzat duen garrantzia edo programa horietan parte hartzeko baldintzak ere.

**3//** Eusko Jaurlaritzak badu atzerrian praktikak egiteko diru-laguntza lerro bat, eta beste bi diru-laguntza lerro atzerriko lana eta nazioartekotzerako. Ez da programa horiekin koordinaziorik aipatzen.

## **II.H) BIZKAIA XEDE (TALENTUAREN SUSTAPENA)**

**Ekintza:** Bizkaia Xede-ren finantziazioa

**Iruzkinek:**

**1//** Bizkaia Xede-k “persona oso kualifikatuak erakartzeko, atxikitze eta lotzeko baldintzak bultzatu eta erraztu, eta Bizkaiko erakundeen berrikuntza eta ezagutza aurreratuaren arloak sustatzea” du helburu.

**2//** Ez dira zehazten Bizkaia Xede-k garatuko dituen ekintzak, eta ez dago gazteria aipatzen duen punturik.

## **II.I) BIZKAILAB DEUSTO**

**Ekintza:** Bizkailab Deustuko proiektu bat da, hainbat proiektu barnebiltzen dituena; besteak beste, “Bizkaia Talentua: enplegarritasuna eta formakuntza” eta “Bizkaia Ekintzailea: ekintzailetasuna eta berrikuntza”. Proiektu gehienek ikerketa zati bat dute, baina ez dira ekintza zehatzak definitzen.



## 2\_GOMENDIOAK

### (GAZTEEN) ENPLEGU PLANEI BURUZ

1/// Gazten Enplegu Planak (GEP) ikuspegi global batetik sustatu eta diseinatuko den plana izan behar du.

Lan taldearen aburuz, GEP batek zeharkako plana izan behar du, herri administrazio desberdinekin koordinatuz sustatua eta, gutxienez, Gazteri, Enplegu, Hezkuntza, Ekonomia Sustapena eta Ogasun sailak sartuta. Hala ere, egungo merkatutik eratorritako gizarte-eta ekonomia eskubideak esfera guztietan urratzen direnez, zeharkakotasun honek arlo guztietara iragazi beharko luke, etxebizitza, nekazaritza eta beste hainbatetara.

Haatik, ohikoa da plan hauek sail bakar batek ezarriak izatea, normalean Ekonomia Sustapenak, eta ez dira koordinatzen beste sail eta administrazio batzuekin (maila autonomikoa edo Lanbide, esaterako) edo interesa duten gizarte eragile edo kolektiboekin. Horren ondorioz, neurriak bikoiztuta agertzen dira, eta beste sail batzuek abian jarritako ekintzak kaltetzen dituzten ekintzak jartzen dira martxan.

2/// GEP bat egiteko asmorik ez bada, **edozein enplegu planek gazteria kontuan hartu beharko luke burutzen diren ekintza guztietarako zeharkako ikuspegi moduan.**

Era berean, ikuspegi global batetik garatu beharko litzateke; izan ere, **Ekonomia Garapenerako ikuspegitik soilik eginda, herritarren eskubideak urratzean sakondu dezake, bereziki gazteenetan**, eta honen inguruko ekintza publikoen helburua Enplegua Ekitatez sortzea izan beharko luke.

Gaztetzakoak izan ala ez, beharrezkoa deritzogu enplegu planei buruzko ohar hauek kontuan hartzeari:

A/// Eskualde eta lurraldeen arteko desberdintasun nabarmenak kontuan hartuta, enplegu plan baten oinarrian lurraldeen egoera eta beharrezkoen azterketa xehakatu bat, tokian tokikoa, egon beharko luke.

2.B/// Enplegu planek **epe luzerako estrategia batean sartuta** egon beharko lukete, eta izaera propioa eduki beharko lukete, urte bateko ahaleginak hurrengora batzeko moduan. Hala ere, askotan soilik epe laburrerako neurriak hartzen dira, eta konexiorik gabeko neurri amalgama bat dirudite; azkenean gastu publikoa handitzen dute eta epe luzera ez dute inolako onurarik ekartzen.

C/// Lan taldearen aburuz, enplegu planek, bereziki jende gazteari zuzendutakoek, bi neurri mota hartu behar dituzte kontuan: neurri aktiboak eta presio neurriak.

Hau da, enplegu planetan, eta, bereziki, jende gaztearentzat prestatutakoetan, neurri hauek jasota egon beharko lukete: **alde batetik enplegua sustatzeko neurriak eta bestetik jende gazteak jasaten duen prekaritatea arindu edo desagerrarazteko modukoak**. Hala ere, lehenengo lerroari begira hartzen dira neurriak (horietako batzuk eztabaidagarriak), baina neurri batek ere ez du asmorik lan eskubideetan eta gizarte eta ekonomia eskubideetan



gazteek beste langile batzuen aldean duten desabantailari aurre egiteko; horiek izan daitezke, esaterako, praktiketako kontratuen baldintzak hobetzeko, mugarik gabeko kontratazioa sustatzeko eta halakoetarako presio politikoa egiteko neurriak.

**D///** Hori dela eta, ezer baino lehen, enplegu planek ez **dute lagundu behar** gaur egun gazteek jasaten duten **prekarietate egoera okertzen**. Horretarako, abian jarritako neurriek gazteengan eta gainerako herritarrengan duten talka berezituari kasu egin behar diote, bereziki prekarietatea, ekonomia- eta gizarte-zaurgarritasuna eta lan eskubideak urratzeari dagokionez. **Beharrezkoa da planak bere irismena zenbaterainokoa den aurreikustea, bai positiboki bai negatiboki.**

**E///** Enplegu plan bat **ezin da izan, inola ere, "Gazteen lepotik lurralde baten ekonomia sustatzeko plan bat"**. Herritarren ongizateak, epe labur, ertain edo epe luzera, politika publikoen erdigunean egon behar du, bai eta enplegu politiken erdigunean ere.

## NEURRI BEREZITUEI BURUZ

Plan bat diseinatzeko asmorik gabe, badira neurri batzuk enplegu plan batzuetan errepikatzen direnak (gazteen enpleguak izan edo ez), eta, gure ustez, arreta jarri behar zaie horiei, hain zuzen ere, neurri horietatik erator daitezkeen ondorioei dagokienez, onak nahiz txarrak izan, behin eta berriro akats berberak ez egiteko.

### **A/// Praktiketako kontratazioari emandako diru-laguntza:**

Jende gaztea praktikan kontratatuzko diruz laguntzen duten programa edo ekintzak ohikoak izaten dira gazteentzako enplegu planetan; hala ere, horixe da jende gaztearen lan egoera okertzen gehien lagundu dezakeen ekintzetako bat; izan ere, enpresen onurarako diren eta kontratatutako pertsonen gizarte-, ekonomia- eta lan-eskubideak murrizten dituzten ohiz kanpoko formulen bidezko kontratazioa sustatzen dute.

Gainera, berez jadanik diruz lagunduta dagoen kontratazio bat diruz laguntzea da, praktiketako kontratuek bai baitaukate jadanik enpresarako soldataren %40ko etekina (lehenengo urtean) hitzarmenarekiko. Mozkin horri enplegu planen bitartez beste diru-laguntza bat edo gizarte segurantzari eginiko kuoten salbuespena eranstea, oso onuragarria da enpresentzat, baina kaltegarria gazteen prekarizaziorako, sustatu egiten baita.

Beste alde batetik, paradoxa bat gertatzen da: enplegu plan batzuetan, praktiketako kontratuei emandako diru-laguntzak handiagoak dira nabarmen (batzuetan bikoitza ere bai) ohiko lan kontratazioei emandako diru-laguntzak baino. Horretaz gain, praktiketako kontratuetan kontratatuen adinean muga jartzen da, eta ohiko kontratuei emandako diru-laguntzetarako ez; beraz, ikus dezakegunez, gazteen kontratazio prekarioa sustatzen da berdintasunezko baldintzetan laneratzea sustatu beharrean.

### **Kontuan hartzekoak:**

**1///** Enplegu plan baten helburua Ekitatezko Enplegua sortzea bada, ez luke praktiketako kontratazioa sustatu beharko, lan eskubideak urratzen baitira horrela, batez ere gazteena.



**2//** Beti ere, praktiketako kontratazioa sustatzeak ez luke inola ere enplegu plan baten ondorio gisa, enpresa batentzako onuragarriagoa izan behar kontratu hori baldintza duinetan eginiko kontratazio bat baino.

**3//** Era berean, halako kontratazioak onartuz gero, emandako diru-laguntzek egonkortasun neurri lotesleak ezarri beharko lituzkete. Hau da, praktikaldia diruz laguntzeko, pertsona hori praktikaldiaren ostean –behin diruz lagundutako epea amaituta- enpresan kontratatu beharko litzateke eta, hala ez balitz, emandako diru-laguntza itzularazi beharko litzaioke enpresari; hala, diru publiko horrek pertsonarentzat baldintza hobeak izango dituen kontratazio bat lortzeko erabiliko litzateke.

**4//** Beti ere, gainbegiratu egin beharko litzateke halako kontratazioak diruz ez laguntzea baldin-eta kontratazio horrek enpresako beste lanpostu bat kentzen badu.

**5//** Amaitzeko, nabarmendu egin behar da diru-laguntza hauek lor ditzaketen enpresen ekonomia balantzeetan baldintzak ezartzeko beharra; izan ere, enpresaren mozkinak kontratazioei aurre egiteko nahikoak baldin badira, ez litzateke diru publikoa horretarako erabili behar: enpresek ordaindu beharko lukete.

### **B/// Kontratazioari emandako diru-laguntzari buruz**

Kontratazioak diruz laguntzea barne hartzen duten ekintzak sustatzekotan, kontratatuen lan-gizarte eta ekonomia- eskubideak urratzen ez dituzten kontratazioak lehenetsi behar dira.

Dena dela, zehaztapen batzuk egin behar dira horrelako neurrien gainean:

**1//** Gazteen enplegua sustatu nahi izanez gero, adin edota kupoei buruzko klausulak ezar daitezke diru-laguntza hauetan, baina inola ere ez litzateke lotu behar gazteen kontratazioa praktiketako kontratazioarekin, kontratazio hauek gainerako adinetarako gordetzen diren bitartean; izan ere, horrek gazteen prekarizazio handiagoa ekarriko luke.

**2//** Aurretik aipatu den moduan, kontratazioari emandako diru-laguntzak sortutako enplegua egonkortzeko neurriekin lotu beharko lirateke. Hau da, diru-laguntza lortzeko, pertsona hori praktikaldiaren ostean –behin diruz lagundutako epea amaituta- enpresan kontratatua sinatu beharko litzateke eta, hala ez balitz, emandako diru laguntza itzularazi beharko litzaioke enpresari; hala, diru publiko horrek pertsonarentzat baldintza hobeak izango dituen kontratazio bat lortzeko erabiliko litzateke.

Gainera, esan beharra dago lan erreforman onetsitako ekintzaileentzako kontratu berriari begiratuta –zeinetan urtebeteko probaldia baimentzen den eta, horren ostean, kontratatutako pertsona kaleratu ahal den inolako kalte-ordainik ordaindu gabe- inoiz baino garrantzitsuagoa da enplegu egonkorra sustatzea eta prekarietatearen sustapena saihestea.

**3//** Amaitzeko, nabarmendu egin behar da enpresek diru-laguntza hauek lortzeko, enpresen ekonomia balantzeetan baldintzak ezartzeko beharra; izan ere, enpresaren mozkinak kontratazioei aurre egiteko nahikoak baldin badira, ez litzateke diru publikoa horretarako erabili behar: enpresek ordaindu beharko lukete.



### **C/// Ekintzailletza eta auto-enplegua sustatzeari buruz**

Ekintzailletza eta auto-enpleguari buruzko diskurtsoa gero eta zabalduago dago iritzi publiko eta politikoan langabezia konpontzeko bide gisa. Bi ahoko ezpata da, ordea, biztanlerian zaurgarritasun maila altuak sor ditzakeena, bereizkuntzarik gabe, politika publiko moduan, aplikatzen bada. Astirik ez dagoenez, ezin da dokumentu honetan honi buruzko diskurtso oso bat egin, baina ohartarazpen batzuk egin behar dira beste enplegu plan batzuetan antzemandako puntuak oinarri hartuta:

**1//** Enplegu plan batean enpresek bankuei eskatutako kredituen interesak diruz laguntzeko ekintzak aurkitu ditugu, eta hori onartezina da. Enplegu plan egoki batean, diru publikoa ezin da erabili banku bati mozkinak bermatzeko, bizilagunen jarduna sustatzeko baizik.

**2//** Askotan, ekintzailletzari eta ekonomia jarduerak abian jartzeari emandako diru-laguntzak soilik erregistro jakin batzuetan alta ematearen baldintzapean ematen dira; hala ere, diru-laguntza hauek emateko ez da begiratzen eskatzaileen errenta maila, eta, hala, oso errenta altuak dituztenek ere aukera dute diru-laguntza horiek lortzeko. Hori dela eta, lan taldearen aburuz, errenta marjinak ezarri beharko lirateke diru-laguntza hauetarako, errenta altuek euren ekintzailletza finantzatzeko ahalmena bai baitute.

Hala ere, diru-laguntza hauek ez dira soilik izan behar etorkizuneko pertsona ekintzaile diren baina orain langabezian dauden pertsonentzat, modu horretan lan egoera prekarioan dauden pertsonak ez baitute aukerarik laguntza horietara iristeko. Gainera, diruz lagundu daitezkeen gastuak enpresetatik eratorritakoetara mugatu ohi dira, eta ohiko gastuak ez dira ahalbidetzen. Horrela, eguneroko bizitzari aurre egin ezin diotenek ezin dituzte diru-laguntza horiek erabili. Horrek gazteei eragiten die batez ere, ezin baitute aurrezkerik gorde bere lan bizitza prekarioan; eta, era berean, diru-laguntzak ez die uzten lanaldi partzialeko beste lan bat hartzen. Hori dela eta, beharrezkoa da arreta jartzea halako baldintzek gazteentzat izan dezaketen talka berezituari.